



## ITURENGO UDALA

(Nafarroa)  
31745

Jose M. Alzuri Vertiz  
Javier Bereau Miquelarena  
Izaskun Altxu Ariztegi

2019ko uztailaren 9an, 10:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

### 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Aurreko bilkuretako aktak irakurri ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4  
Abstenzio 3

**Aurreko bilkuretako aktak onartzea.**

### 2.- BALORAZIO PONENTZIA.

TRACASAk prestaturiko ponentzia aztertu ondoren eta TRACASako langile batekin izandako bileran eztabaidatutakoa kontuan harturik, Udalburuak bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4  
Abstenzio 3

- 1.- Balorazio Ponentzia onartzea.
- 2.- Udal ordezkariak hurrengoak izendatzea: **María José Bereau Baleztena, Jose María Alzuri Vértiz eta Javier Bereau Miquelarena**
- 3.- Balorazio ponentzia erakustaldi publikoan jartzea 20 lanegunez.
- 4.- Erakustaldi publikoa NAO-n eta Iragarki Oholean argitaratzea.

### 3.- HIRIGINTZA TASEN ORDENANTZA ALDAKETA.

Hirigintza taseen ordenantza ikusita eta aldaketak aztertuta, Udalburuak bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 4



## **ITURENGO UDALA**

(Nafarroa)  
31745

Abstenzio 3

- 1.- Aldaketa onartzea.**
- 2.- Aldaketak eraustaldi publikoan hoge eta hamar egunez jartzea.**
- 3.- Eraustaldi publikoa NAO-n eta Iragarki Oholean argitaratzea.**

### **4.- EMOT: BEHIN BETIKO ONESPENA.**

2019ko urtarrilaren 28an argitaratu zen NAO-n, 2018ko abenduaren 17an ospaturiko Osoko Bilkuran onartu zen EMOTaren behin behineko onespena. Erakustaldi publikoan alegazioak izan ziren. Alegazioetatik bi onartuak izan ziren eta EMOTean aldaketa funtsezkoak ekarri zituzten. EMOTaren bersio berria erakustaldi publikoan jarri zen berriro ere 2019ko maiatzaren 23an argitaratu zen 99. NAO-n. Erakustaldi publikoan egon ondoren ez dira alegaziorik izan eta Udalburuak bozkatzera deitu du. Udalbatzak hurrengo erabaki du:

Alde 4

Abstenzio 3

- 1.- EMOTaren azkeneko bertsioa behin betiko onartzea.**
- 2.- Nafar Gobernuako Ingurugiro eta Lurralde Antolamenduko sailera bidaltzea, EMOTaren inguruan txostena eman dezaten eta Lurralde Atolamendu Batzordea ospatzeko.**
- 3.- Udal zerbitzu teknikoetako María Urmeneta Udal ordezkari izendatzea EMOTa defendatzeko aipaturiko batzordean.**

### **5.- ALTXUNEA ETA AXURDIKO OIHAN APROBETXAMENDUAK: PLEGUAK.**

Nafar Gobernuak bidalitako plegu teknikoak ikusita eta plegu administratiboak aztertuta, Udalburuak bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengo erabaki du:

Alde 4

Abstenzio 3

- 1.- Pleguak onartzea.**
- 2.- Oihan aprobetxamneduak enkantean ateratzea.**
- 3.- Enkantea NAO-n eta Nafarroako aldizkari batean argitaratzea.**

### **6.- ESKABIDEAK.**



## ITURENGO UDALA

(Nafarroa)  
31745

5.1 José Ángel Ayoroa Hualde bagoa eta haritza aprobetxatzeko eskaera egin zuen, *Ganbelar* lur eremuan eroritako bi zuhaitzena hain zuzen ere. Basozainak zuhaitzen balorazioa 49,8 eurotan egin zuen. Udalbatzak eskaera aztertu ostean hurrengoa erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

- 1.- Aprobetxamendua Ayoroa jaunari ematea, 49,8 euroren truke.**
- 2.- Akordioa interesdunari helaraztea.**

5.2 Bestetarako Miguel Fernández jaunak, jostailu postua jartzeko eskaera egin zuen. Udalbatzak eskaera aztertu ostean hurrengoa erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

- 1.- Postua jartzeko baimena ematea.**
- 2.- Postua jartzeagatik dagoen tasa kobratzea.**
- 2.- Akordioa interesdunari helaraztea.**

5.3 Eva Elizalde Telletxea eskolako azken eguneko festa antolatzeke, argi indarra eta karpa eskatu zituen. Udalbatzak eskaera aztertu ostean hurrengoa erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

- 1.- Baimena ematea Elizalde andreari.**
- 2.- Akordioa interesdunari helaraztea.**

5.4 Xabier Altzuri Arretxea, 2. poligonoko 446. partzelan dauden 20 haritz amerikar aprobetxatzeko eskaera egin zuen. Basozainak zuhaitzen balorazioa 895 eurotan egin zuen. Udalbatzak eskaera aztertu ostean hurrengoa erabaki du:

Alde 4

Abstentzio 3

- 1.- Aprobetxamendua Altzuri jaunari ematea, basozainak egin duen 895 euroko balorazioaren truke.**
- 2.- Akordioa interesdunari helaraztea.**



## **ITURENGO UDALA**

(Nafarroa)  
31745

### **7.- MOZIOAK**

Ez dago moziorik.

### **8.-ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Udalburuak alkatetzaren ebazpenak (2019/17tik 2019/21era) irakurri ondoren, bozkatzera deitu du. Udalbatzak hurrengo erabaki du:

Alde 4  
Abstentzio 3

**Ebazpenak berrestea.**

### **9.-HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Udalburuak hurrengo gaiei buruz Udalbatza informatu du: Osasun Kontseiluaren bilerara gonbidapena; NILSAko udako ikastaroen eskaintza; Berdintasunaren guida, NUKFak bidalia; Konfederazioaren, zaborrak botatzeko edukiontzien ondoan dauden zuhaitzak mozteko eskaera jaso duenaren jakinarazpena; Cederna elkartearen 2019ko kuotak; UEMAko adierazpen instituzionala udalerrri euskaldunen inguruan, eta haien elkargoan parte hartzeko gonbidapena; Nafar Gobernuako Transferentzia arruntak onartzen duen Toki Administrazioako Zuzendari Orokorraren 55/2019. ebazpena; Iberdrolaren tarifa elektrikoaren eta okupazioengatikoko tasen inguruko jakinarazpenak; Udalak eskaturiko kamioaldeko lur eremuan dauden zuhaitzen aprobetxamenduaren balorazioa; Nafar Gobernuak lan istripuen inguruan idatzitako gutuna (Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzailearena); Red NELSeko kuotak 2019rako; Abeltzaintza ustiatzearen Erregistroko bajak: Juan Carlos Ganuza Armendáriz, Maria del Coro San Sebastián Huici eta Iñaki Vera Mutuberriaren izenean daudenak; Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren sekzioa arduradunak ur kontrolerako eman duen txostena; Nafar Lansareko Zuzendariaren 902E/2019. Ebazpena, zerbitzu anitzetako langileak kontratatzeko diru laguntza ematen duena; 2019ko Loteak arautzen duten pleguak, Ingurugiroko Zuzendariaren 289/2019. ebazpena; Genero indarkeriaren aurkako jardueren inguruan jasotako diru laguntza justifikatzeko arauak, Gobernuaren Ordezkeriak bidalitako gutuna;



## **ITURENGO UDALA**

(Nafarroa)  
31745

### **10.- GALDE-ESKEAK.**

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 11:00ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.